

Jakingarriak aldizkariaren azken aleak IKTak hezkuntzan aztertzen ditu

2009/07/06

Jakingarriak aldizkariak **66. zenbakia** kaleratu berri du, eta bertan gai nagusia da Informazio eta komunikazio teknologia berriak hezkuntzan (II). Aurreko zenbakiak ere gai bera landu zuen. Ohiko atalez gain (Liburu berriak, aipu interesgarriak eta baliabideak), aldizkariaren zenbaki honek honako artikulua dakartza:

- Bideo jokoak gure ikastetxeetan.
- Edu(komuni)kazioa noizko?
- Zinema eskolan sartu da.
- Europako esperientzia bat: "Travelling toys".
- IKTen erabilera pedagogikoaren eta integrazio prozesuaren analisia ikastetxe batean.
- Ikusmen-urritasuna duten haurrek audioan oinarrituriko softwarez matematika ikastea.

Ale honetan aditu hauek parte hartu dute: Joxe Aranzabal, Amaia Pavon, Mari Carmen Diez Navarro, Ana Diaz Cappa, Rosa M^a Ropero Perejil, Gregoria Batalla Batalla, Daida Gonzalez Salamanca eta Jaime Sanchez.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko **Dokumentazio Zentroak** egiten du Jakingarriak aldizkaria. Aurrekoak bezala, EAEko ikastetxe guztietan eta Nafarroako eta Iparraldeko ikastoletan banatuko da, **1.200 ale** guztira.

